



Usurbilgo Udala



2016KO URTARRILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Garcia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko urtarrilaren 26an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA.

* 2015EKO AZAROAREN 24KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek 2015eko azaroaren 24ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

* 2015EKO ABENDUAREN 23KO EZOHIKO BILKURA.



Usurbilgo Udala



Batzarkideek, 2015eko abenduaren 23ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015EKO ABENDUAREN 14TIK 2016KO URTARRILAREN 15ERA. (2015/1140-2016/0026)

Alkatetzak 2015eko abenduaren 14tik 2016ko urtarrilaren 15era bitartean (2015/1140–2016/0026) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- BATZORDE INFORMATZAILEEN OSAKETAREN BERRI EMATEA.

Alkateak azaldu du batzorde informatzaile gehienak legegintzaldi hasieran osatu baziren ere, aurreko hilean osatu zen Antolakuntza batzordearen ondoren, bilkura honetan batzorde guztien osaketaren berri ematen dela.

Gaineratu du Antolakuntza batzordearen deialdia hurrengo astean egingo dela seguraski.

Batzarkideei batzorde informatzaileen osaketaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

“Esp.zk.: ID.02/2015-0259

2015eko ekainaren 30ko Udalbatzarraren ohiko bilkuran Batzorde Informatzaileen kopurua, izena eta osaketa erabaki ziren.

Gerora, 2015eko abenduaren 23ko Udalbatzarraren ezohiko bilkuran Antolakuntza Batzorde Informatzailea eratzea eta honen osaketa erabaki ziren.

Udala osatzen duten hiru udal taldeek batzordeetan beraien ordezkariak zeintzuk izango diren zehaztu zituzten.

Udal Arautegi Organikoaren 13.3. puntuaren baitan, Udalbatzarri Batzorde Informatzaileen osaketaren berri ematen zaio:

OGASUNA ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIA

EHBILDU:	Alaitz Aizpurua (Lehendakaria)	Ordz: Xuban Zubiria
	Xabier Arregi	Ordz: Joxe Mari Iribar
	Jone urdanpilleta	Ordz: Irene Garcia
EAJ/PNV:	Josune Urkola	Ordz: Mirari Azurmendi
PSOE:	Fermin Orue-Echevarria	



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

HEZKUNTZA ETA GARAPENA

EHBILDU	Alaitz Aizpurua (Lehendakaria)	Ordz: Xuban Zubiria
	Josune Estella	Ordz: Jone Urdanpilleta
	Xabier Arregi	Ordz: Joxe Mari Iribar
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordz: Andoni Atxega
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

NEKAZARITZA ETA INGURUNEA

EHBILDU	Joxe Mari Iribar (Lehendakaria)	Ordz: Xabier Arregi
	Irene Garcia	Ordz: Alaitz Aizpurua
	Jone Urdanpilleta	Ordz: Josune Estella
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordz: Carlos Perez
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

HIRIGINTZA

EHBILDU	Xabier Arregi (Lehendakaria)	Ordz: Alaitz Aizpurua
	Jone Urdanpilleta	Ordz: Irene Garcia
	Joxe Mari Iribar	Ordz: Xuban Zubiria
EAJ/PNV	Mirari Azurmendi	Ordz: Carlos Perez
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

ZERBITZUAK ETA OBRAK

EHBILDU	Jone Urdanpilleta (Lehendakaria)	Ordz: Irene Garcia
	Joxe Mari Iribar	Ordz: Xuban Zubiria
	Xabier Arregi	Ordz: Alaitz Aizpurua
EAJ/PNV	Mirari Azurmendi	Ordz: Carlos Perez
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIA

EHBILDU	Xuban Zubiria (Lehendakaria)	Ordz: Josune Estella
	Alaitz Aizpurua	Ordz: Jone Urdanpilleta
	Xabier Arregi	Ordz: Irene Garcia
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordz: Andoni Atxega
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

PERTSONALA

EHBILDU	Xabier Arregi (Lehendakaria)	Ordz: Joxe Mari Iribar
	Alaitz Aizpurua	Ordz: Josune Estella
	Jone Urdanpilleta	Ordz: Irene Garcia
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordz: Carlos Perez
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

PAREKIDETASUNA ETA ANIZTASUNA

EHBILDU	Josune Estella (Lehendakaria)	Ordz: Xabier Arregi
	Jone Urdanpilleta	Ordz: Irene Garcia
	Alaitz Aizpurua	Ordz: Joxe Mari Iribar
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordz: Andoni Atxega



Usurbilgo Udala



PSOE Fermin Orue-Echevarria

OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUAK

EHBILDU	Jone urdanpilleta (Lehendakaria)	Ordz: Xabier Arregi
	Irene Garzia	Ordz: Joxe Mari Iribar
	Josune Estella	Ordz: Xuban Zubiria
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordz: Andoni Atxega
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

KIROLA

EHBILDU	Iñaki Ugarte (Lehendakaria)	Ordz: Xabier Arregi
	Jone Urdanpilleta	Ordz: Joxe Mari Iribar
	Xuban Zubiria	Ordz: Alaitz Aizpurua
EAJ/PNV	Andoni Atxega	Ordz: Carlos Perez
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

ANTOLAKUNTZA

EHBILDU	Xabier Arregi (Lehendakaria)	Ordz: Joxe Mari Iribar
	Alaitz Aizpurua	Ordz: Irene Garzia
	Jone Urdanpilleta	Ordz: Xuban Zubiria
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordz: Mirari Azurmendi
PSOE	Fermin Orue-Echevarria	

4.- 2015EKO ABENDUAREN 30EKO 2015/1218 DEKRETUA BERRESTEA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEA.

Alkateak adierazi du 2015/1218 dekretuan Etxez etxeoko laguntza zerbitzu kontratua luzatzea erabaki zela eta orain erabaki hori plenoak berretsi behar duela.


Gai hau Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzordetik pasa zela esan du eta Jone Urdanpilletari eman dio hitza argibideak eman ditzan.

Jone Urdanpilletak azaldu du batzordean zabal hitz egin zela gai honi buruz eta kontratua luzatzearen arrazoiak zeintzuk ziren ere jakinarazi zela.

Aurrekariei buruz jakinarazi du 2009an egin zela Arreta Zerbitzuak S.L.aren aldeko esleipena eta 2010eko urtarrilean formalizatu zela kontratua. Lau urterako esleipena zen eta beste bi urtez luzagarria, beraz, sei urteko iraupena izan duela esan du. Egoera hori izanik lizitazio berria jarri zela martxan adierazi du, baina epe barruan inor ez denez aurkeztu lizitazioa desertu geratu dela jakinarazi du.

Gerora, epez kanpo bi enpresa aurkeztu direla gaineratu du.

Hau guztia horrela, lizitazio berri bat martxan jarriko dela esan du, baina bitartean zerbitzua ez eteteko proposatzen dena da enpresa berari eta baldintza berdinetan gehienez sei hilabetez kontratua luzatzea.



Usurbilgo Udala



Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzordearen irizpena kontutan hartuta, 2015eko abenduaren 30eko 2015/1218 dekretua aho batez berretsi dute, honela dio erabakiak:

“Espediente zkia.: ID.05/2009-0441

Dekretuak honela dio:

“XABIER ARREGI IPARRAGIRRE Usurbilgo Udaleko ALKATEAK,

Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bategina onartzen duen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.k) artikulua xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Alkate-Lehendakariak etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko beharrezko administrazio izapideak hasteko agindua eman zuen 2009ko irailaren 17an. Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2009ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran Usurbilgo Etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitu ahal izateko kontratazio espedientea onartzea eta prozedura irekira deitzea erabaki zuen. Esleipena ARRETA ZERBITZUAK S.L. enpresari egin zitzaion eta alderdiek kontratua formalizatu zuten 2010eko urtarrilaren 2an.

Kontratu horretako 3. klausularen arabera Kontratu burutzeko epea lau urtekoa zen, hitzarmena izenpetzen zen egunetik kontatzen hasita, eta administrazio-baldintza zehatzen agirian ezarritako moduan luzatu ahal izango zen, hau da, beste bi urtez, urtez urte. Luzapen guztiak burututa daude.

Martxan jarri den lizitazio berrian epe barruan ez dela eskaintzarik aurkeztu eta hortaz, desertu geratu dela.

KONTUTAN HARTURIK

2015eko abenduaren 17ko dataz Gizarte Zerbitzuetako arduradunak txostena osatu du, 2016ko urtarrilaren 2tik aurrera zerbitzua ematen jarraitzeko beharraz.

2015eko abenduaren 29ko dataz Kontratazio teknikariak txostena osatu du. Txosten horrek dioenez Administrazio Baldintza Zehatzen pleguko 3. puntuaren arabera, Udalak egoki jotzen badu, adjudikaziodunak zerbitzua eskaintzen jarraitu behar du bere garaian adjudikatzen duten kontratu berria hasi arte, betiere gehenez sei hilabeteko epe batez kontratua bukatzeko ezarritako egunetik aurrera.

2016ko urtarrilaren 2a baino lehen luzapen berezi hori Udalbatzak ezin izango duela onartu.

ERABAKI DUT

LEHENENGO: *Usurbilgo Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzu kontratua luzatzea, ARRETA ZERBITZUAK S.L. enpresarekin sinaturikoa, 2016ko urtarrilaren 2tik esleipen berria egin arte, gehienez ere 6 hilabetez eta orain arteko baldintza berdinetan.*



Usurbilgo Udala



BIGARRENA: Kontratuaren prezioa orduko prezioetan dagoen heinean, dagokion gastua baimentzea eta xedatzea, 2016ko aurrekontuko dagokion kontu-sailaren kontura, horretarako kreditu nahikorik badago.

HIRUGARRENA: Udalbatzari, kontratu honetako kontratazio organo den heinean, dekretu hau berresteko eskatzea.

LAUGARRENA: Esleipendunari dei egitea kontratuaren luzapen-agiria sinatzera Udalera etor dadin, Udalbatzaren berrespen erabakiaren ondoren.

BOSGARRENA: Interesatuari eta kontuhartzaitzari erabaki hau jakinaraztea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeo errekurtsua aurkez dezake azaroaren 26ko 30/1992 eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeen arabera Alkatetzaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako:erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeo eskatu ordez, edo berraztertzeo errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsua aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak sei hilabeteko epea izango du berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik kontatzen hasita administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko.”

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2016ko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta, Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko bozkekin, aho batez, Udalbatza Plenoari luzatutako irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Alkateak 2015eko abenduaren 30ean emandako 2015/1218 Dekretua berrestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Arreta Zerbitzuak S.L.-ri eta kontuhartzaitzari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

5.- ARTZABAL ERAIKINEAN KOKATURIKO “GURE PAKEA” JUBILATUEN TABERNAREN KUDEAKETA KONTRATUA ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI ONESPENA EMATEA.

Alkateak adierazi du gai hau ere Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzordetik pasa zela eta Jone Urdanpilletari eman dio hitza azalpenak eman ditzan.

Jone Urdanpilletak azalpenak eman ditu. Kontratua lau urte baino gehiagorako izango denez, plenoaren eskumena dela esan du onespena ematea.

Indarrean dagoen kontratua otsailaren 28an amaitzen dela esan du eta esleipena burutu arte, aurreko kasuan bezala, zerbitzua bermatu ahal izateko luzapena sinatuko dela jakinarazi du.

Kasu honetan epe luze baterako lizitazioa proposatzen dela esan du, ikusi baitute kudeaketa on batekin jarduerak funtzionatu dezakeela.

Jarraian, lizitazioaren baldintza esanguratsuenak aipatu ditu.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute aho batez:

“Espediente zkia: ID.05/2016-0024


IKUSIRIK

Sektore Publikoen Kontratuen Testu Bategina arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 109. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedienteari ahalmena duen organoak eman behar dio hasera, kontratuaren beharra justifikatuz, lege berdinen 22. artikuluan xedatutako moduan.

Artikulu berean xedatzen denez, esleipen-jardunbidea osatzen duten jarduketak hasi baino lehen kontratazio-espedientea egin behar da. Eta bertan jasoko dira, besteak beste, Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak, Baldintza Teknikoen orriak eta kreditu agiria.

Usurbilgo Artzabal eraikinean kokaturiko “Gure Pakea” jubilatuen tabernaren kudeaketa kontratua esleitzeko kontratazio espedienteari hasiera eman nahi zaio ondoko ezaugarriekin:

1.-Unitate sustatzailea: ONGIZATE SAILA



Usurbilgo Udala



2.-Unitate hartzailea: IDAZKARITZA-KONTRATAZIOA

3.-Kontratuaren gaia helburua: Artzabal eraikinean kokaturiko Gure Pakea jubilatuen tabernaren kudeaketa.

4.-Zerbitzua kontratatzearen beharra edo egokitasuna: Artzabal udal eraikinean kokaturiko Gure Pakea jubilatuen tabernaren kudeaketa aurrera emateko udalak ez du langile propiorik eta hortaz, berau kontratatzea beharrezkoa da jubilatuen elkarte eta haien erabilerarako eraikinaren kudeaketa egokia egiteko.

5.-Kanona:

Hileko 1.000 euro (% 21eko BEZ 210 euro, guztira 1.210 euro)

Lehen bost urtetako iraupenerako 60.000 euro (BEZ barne 72.600 euro), eta luzapen guztiak kontuan harturik 120.000 euro (BEZ barne 145.200 euro).

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2016ko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta, Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko bozkekin, aho batez, Udaltzako Plenoari luzatutako irizpena kontutan hartuta, plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Usurbilgo Artzabal eraikinean kokaturiko “Gure Pakea” jubilatuen tabernaren kudeaketa kontratua esleitzeko kontratazio espedienteari onespina ematea, administrazio kontratu bereziaren bidez.

BIGARRENA: Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespina ematea.


HIRUGARRENA: Lizitazio iragarkia GAO-ra bidaltzea eta kontratatzaile profileen horren berri ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

6.- GALDERA-ESKAERAK.



Usurbilgo Udala



Carlos Pérezek galdetu du udal autobus txikiko erabiltzaileek Lauroken beste aldeko espaloian hartzen dutela autobusa eta ez autobus geltokian, horrela euria egiten duenean babesik gabe egoten direlarik. Galdetzen duena da ea ez al litzatekeen posible erabiltzaile hauek autobusa autobus geltokian hartzea.

Erantzun zaio ez dakitela horren zergatia eta galdetuko dutela.

Beste gai bati dagokionez, Carlos Pérezek aipatu du gurpildun aulkian dabilen mutil batek esan ziola herrian dauden oinezkoen pasabide batzuk eta espaloiak ez daudela nibel berdinean eta autoek eta motorrek espaloietan aparkatzen dutela.

Alkateak erantzun dio herrian dauden pasabideen inbentario bat egin nahi dela eta pertsona horrekin harremanetan jarriko direla udaletik.

Espaloietan autoak aparkatzeari buruz erantzun dio dagoen arazoaz jabetzen direla, eta hainbat espaloietan bertan ez aparkatu ahal izateko oztopokoak jarri direla zehaztu du. Halaber, udaltzainen aldetik isunak areagotu beharko direla esan du, ikusten baita praktika batzuk hedatu egiten direla. Udaltzainei esango diela esan du bereziki arreta jartzeko espaloi gainera aparkatzeko ohitura horiei.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:25ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.